

# Ahulen sexuaz.

HASIER ETXEBERRIA



**BAT**, bat, bat... Bat parrandan ibili. Irungo San Martzialetan ez dut eskupetadun neska txapelgorriarik ikusi.

Bi. Olga, bederatzitarte.

Bortxaz erabili. Aseino gaiztoa. Ero madarikatu ahalena. Lo txarrak lagunduko ahal hau hil artio!

Hiru. Emakundek bere azken datuak kaleratu ditu: gizonezkoetan ehuneko larogei ez dugu etxeko lanetan laguntzen. Haurrak, intendentzia eta mantenua emakumeen bizkar joaten omen dira ia beti. Metaleko ikasketetan ehuneko bi ere ez dira neska eta ez naiz batera harritzen. Pelukeria eta estetikara ikasketetan, ehunetik larogaitamabost dira emeak. Honek ere ez nau batera harritzen.

Lau. Nere neskalagun batek mutilok ez gara la ezertaz jabetzen dio.

Bost. Nere mutilagun batek neskek ez direla ezertaz jabetzen dio.

Sei. Etzidamu zazpi. San Fermin.

Zazpi. Zuek neskok, gure aldean lauitik bat gutiago irabazten duzue lan berbera egin arren. Nik ehun. Zuk hirurogeitamabost. Desberdintasun garestia.

Zortzi. Sarajevoeko eromen odoltsuan emakume bat da albiste prentisarik horienena. Eskupetaduna da. Serbiarra. 'Katiuska' kohetek eta 150 milimetrotako projektiletik nahikoa ez balira bezala, bere eskupetat tiratzen ditu ogiaren iladan daudenak. Ez ditu orain arte hildako guztiak zenbatu. Non begia, bertan bala. Ezizena jarri diote hogeitertako kazetari-tza ikasle den neska honi. 'Gezia' esaten diote.

Bederatzit Gizonak gizona hil du Asturiasko Teverga herrian. Batak bestea. Meatzaria hildakoa, zaindaria hiltzailea. Urte batzuk lehenago hildakoa atera omen zuen hiltzaile istripu larri baten estuasunetik.

Hamar. Bost urte gehitu diote zigorra GALEKO 'Andere Beltzari'.

Hamaika. Sexua non izkutatzen den galdetu nion nere lagun forense bati.

Hambabi. Bi belarrien artean daukagun terrento-xoan, esan zidan.

Hamaru. Ez dok amairu.

# Buruko minak

TXILLARDEGI



**BAI** Vargas Llosa eskuindarrak, eta bai burukratar guztiak, buruko min gaitzak jasango dituzte aurrerakoan: «Lehen Europa hura 'hain erraza zelanik... eta orain 'istilu hutsa': Kroazia, Estonia, Mazedonia... Norat ari gara?».

Europa berri hori idazlearen nortasun-arazoetan agertzen da garbiki. Zer zen Yoace; erretarra benetan? Eta Pio Baroja, zer? Seriotan esan al daiteke Kalfa txekiarrak zela? Ez ote zen kanpoaldeko alemana? Ez ote zen judua, besterik gabe? Zer zen Jose Maria Arguedas? Eta Miguel Angel Asturias, zer?

Kasu ezaguna da Günter Grass-ena. Dantzigtarra izanik (ala Gdansktarra?), zortitxarrez irakurria ez dudan liburu mardul bat utzi digu Gdansk bere sorterriaz; eta bere identitate-arazoa azaltzen bide du zehazki. Zer da bera: poloniarra, alemana, prusiarra?

Hots, orain, egun hauetantxe jakin dugunez, beste Nobe-Sari famatu batek erantzi du bere kasoa zerrenda bitxi horretan. 52 urtez deserrin paxa ondoren. Kaunas-ko Unibersitatean errebeitu dute berori ohoretan. Elebiduna (poloniera-lituaniarra) izanik, lituaniera xamurrez hasi du bere hitzaldia: gero polonierara pasatuz. *Wilson* jaioa (ortuan Poloniako eskualde), gaur *Vilnius* lituaniarra bihurtu zaita jaioterria. (Hain *zuzen* ere. Inaiev-en estatu-kolpeko egunetan oso begitan hartua izan den eskualde arrotzean). Czslav Milosz-ek ari gara, jakina: gure gazte-denboran 'La Pensée Captive' liburuaz oso aipatua. Bere burua 'poloniar poetizat' dauka Milosz-ek bere 83 urteetan. Baina jaiotzen zen herria gaur Lituania da; eta bere hizkuntz eskubideak galdu berriak ditu...

Saltsa gaitza. Noski.

Europa ez baita kondatu zigutena. 'Pais Vasco-navarro' hura, kondatu zigutena ez den bezalaxe.

Burukratez gain, nor eta zergatik tristatuko?

# egin

## Meloia irekitzea

Gertaezina zirudiena, hurrengo hilabeteetan gertatuko da. Espainiako Konstituzio sakrosantua erreforma prozesu bat eza-gutuko du. Atzora arte mito bat izana zen erreforma hori. Azkenean, 'togadun aristokrazia' deritzona izan behar Gobemua bere tokian jarri duena eta, orobat, al-daketa konstituzionalaren beharra finkatu duena.

Zergatik espainiar Gobemua- ren erresistentzia hori Konstituzioaren erreforma prozesuari ekiteko? Besterik gabe, komentista politiko askok azaldu duten bezala, behin 'meloia iri lehenengo xerra kendu ondoren' baten batek 'gehiago jaten' jarraitzeko tentazioa izan dezan arrisku-bait dago.

Konstituzio erreformatik zein xerra gehiago bana liteke? Ez zaio inori ahaiztuko Euskal Herriko errebindikazio historikoek zutik diratela...

ADOLFO ARAIZ (abokatua)

# HEMEROTEKA



GALLEGO & REY / DIARIO 16

## ABC

### Zuzenbidezko Estatua?

Ez da 'a priori' baztertu behar 'damutuak' bergizarteratzeko politika egoki bat aurrera eramatea -ez ahaiztu Italian, praktika honi hasiera eman zitzaion tokian, 'damutua' Poliziaren laguntzaile aktibo bat dela- ETA- ren kontrako iharduera marko orokorretik. Zalantzan jartzen dugu Justiziaren, legearen eta kaltetuek ordaina jasotzeko duten eskubidearen kaltetan ezkuta eginik, lardaskeria lotsaga-

ri hauek zerikusi handirik ote duten bergizarteratzeko benetako borondate batekin, eta bai, berriz, Rafael Verak Antxonik egindako 'temperatura hartze' horiekin.

EDITORIALA

## EL PAIS

### Erreforma

Maastrichteko Europar Batasunerako Hitzarmenaren ondorioz egin beharreko konstituzio erreforma, ziur aski, litekeen txikiena da. Baina aldaketa txiki

EDITORIALA

# ZUZENDARIARI

## Pere Casaldaliga: Bakearen Nobel Saria liberazioarentzako

Orain dela lau urte hasi zen Bakearen Nobel Saria Pere Casaldaligari ematearen aldeko kanpaina. Kanpaina horren alde jarri da hainbat jende ezagun, hala nola Adolfo Perez Esquivel. Casaldaligak sari hori ondo merezita daukalakoan gaude, hogeitertik gora eman baitu integratzaile latinoamerikararen alde, herrialde indiar eta beltzen eskubideen alde lan eginez, bai eta Brasileko Amazoniako laborarien alde ere, eta bizi osoa eskaini baitu giza eta herrien zerbiztura.

Bagesen (Catalunykako Manresa aldean) kokatutako Balsaren herriko seme dugu Pere Casaldaliga. 64 urte ditu orain. Zapalduetako konpromezu bilakatu du bere bizitza. 1952an egin zen apaiz eta 1971an Sao Felix do Araguaiaiko 120 mila kilometro karraituko prelatura berri bateko apezpiku izendatu zuten. Brasilgo Mato Grosso, *Jazenda* (latinfundio) handiz betetako lurralde batean dago kokaturik leku hori eta bertan indarkeria eta zuzengabekeria dira *posseiro*-en (lur salletako kolonoen) eta bertako en eguneroko ogia. azken hauek jauntxoek biktima direlarik. Casaldaligaren ahoitsa ez da batera samurra izan

askorentzat, nazioarte mailan salatu baitu egoera hori. Hori dela eta atzetik, ibili zaizkio etengabe, hiltzeko mehatxuak jaso ditu eta behin baino gehiagotan eskatu izan du herrialde hartatik kanporatzeko. Hiru aldiz saiatu dira bera hiltzen, baina lehen bezain tinto jarraitzen du, hartarik, zapalduen alde.

Gaur egun, 'Boskarren Mendeurrenaren' ospakizuna dela eta, kolonialismoarekiko kritikito eta bertako herrialdeen alde azaltzen zaigun atzera ere. Erromarekiko izan dituen harremanak ez dira inoiz ere oparogaiak izan, Liberazioaren Teologiaren ordezkari ezagunenakoa baitugu Casaldaliga. Haren buruko laborari batek oparitutako lastozko kape-lu bat omen da, eta makila, berriz, indio *tapi-rapé* batek egindako egurrezko arrauk bat.

TONI STRUBEE I TRUETA

Hondarribia (Gipuzkoa)

## Euskarak ez du atzerapenik ekarri

Ekainaren 30a, asteartea, komunikabideetan agertu ziren Foru Komunitateko Gobernuo lehendakariordean den Miguel Sanz jaunnek erran omen zituen hitzak. Horien arabera, Zezen Ikuskizunen Erregelamendu berria, Gobernuak ekainaren 29an, joan den aste-

lehenean, onetsi zuena, ezin izanena da heldu den Sanferminetako Ferian aplikatu, euskarara itzuli 'behar' baita eta «gisa horretako idazki bat euskaraz emateko zailtasun franko aurre egin behar baitaio».

Adierazpen horien berri izanik, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko Itzulpen Ataleko langileok honako hau jakin erazi nahi dugu:

1) Zezen Erregelamendu hori euskarazteko, ez dugu konpondu ezin den arazo bezerezirik aurkitu.


2) Ez da egia Erregelamenduan Sanferminetako Ferian aplikatu gabe geldituko dela euskarara itzuli 'behar' delako. Itzulpen Atal honen agindu zation lana burutu eta behar denari eman dio gaur goizean, uztailaren leian (Erregelamendua herenean, astelehenean, onetsi zen), eskatu eta hitza eman bezala.

3) Ez dugu ulertzen eta ez dakigu zergatik atzeratuko den Erregelamenduen argitarapena. Ez dakigu zergatik erabili duten atzerapenaren arrazoiak Atal honetako langileon lana edo Administrazioaren erabakirik erdaraz bezala euskaraz ere argitaratu 'behar izate' hori.

NAFARROAKO GOBERNUAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO ITZULPEN ATALEKO LANGILEOK

# GAIA JARRITA

## Euskaldunak Tourrean



Euskaldunak Tourrean gai ona nerretzat. Maitasun fina daukat nik Tourrarentzat nere txalao antola duten guzientzat baina oharrena doa bi nazioentzat Frantzi ta Espanintzat zuena zuentzat Euskadi guretzat garaia egiantzat ta Tourra izan bedi Induraintentzat.

EUSEBIO LASARTE



Batzorde Parakada: 72504 E., Egoe Gerdaltza: SS 800/90

Administratze Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URIA

Zuzendariordeak: LUZIE ETXEZHARRRETA

Komertzial Zuzendaria: JUAN INAZIO HARTISLAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02.

Publika / 20100 Lasarte-Oña / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egokiza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Antso

Jakintuna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iruñe Monastegia, 45-13. esk. / (Iruñiti dorrea) / 31011 Iruñe / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia katu / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11